

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Portugaleteko Udala**

20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarriei dagozkion lehiaketa-sistema-ren bidez egindako hautaketa-prozesuen oinarri orokorren eta espezifikoen deialdia eta onarpena.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko azaroaren 30ean egindako bileran hartutako erabakiaren bidez, honako hau xedatu da:

Lehena: Portugaleteko Udalaren zerbitzuko langileak hautatzeko merezimendu-lehiaketako hautaketa-prozesuen oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko maiatzaren 18an onartutako Enplegu Publikoaren Eskaintzarekin bat etorritz (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 97. zenbakia, 2022ko maiatzaren 23koa). Honako deialdi hauei dagozkie oinarri horiek:

1. Udaltzaingoaren aholkulari juridikoa, funtzionario-izaera, A1 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
2. Giza Baliabideetako teknikaria, funtzionario-izaera, A1 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
3. Aurrekontu-kudeaketako aholkularia, funtzionario-izaera, A1 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
4. Errenta-teknikaria, funtzionario-izaera, A1 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
5. Diru-bilketako teknikaria, funtzionario izaera, A1 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
6. Arkitektoa, funtzionario-izaera, A1 azpitaldea, Administrazio Bereziko Eskala.
7. Hirigintzako aholkulari juridikoa, funtzionario-izaera, A1 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
8. Enplegu eta autoenplegu teknikaia, funtzionario-izaera, A1 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
9. Enplegu, autoenplegu eta turismoko teknikaria, funtzionario-izaera, A2 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
10. Erosketa-teknikaria, funtzionario-izaera, A2 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
11. Udal-aparejadorea, funtzionario-izaera, A2 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
12. Obra eta mantentze-lanetako teknikaria, funtzionario-izaera, A2 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
13. Berdintasun-teknikaria, funtzionario-izaera, A2 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
14. Informatikako teknikaria, funtzionario-izaera, A2 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
15. Kontu-hartzailezako Administrazioa, funtzionario-izaera, C1 azpitaldea, Administrazio Orokorreko eskala.
16. Merkatuen administrazioa, funtzionario-izaera, C1 azpitaldea, Administrazio Orokorreko eskala.
17. HABko administrazioa, funtzionario-izaera, C1 azpitaldea, Administrazio Orokorreko eskala.
18. Errola eta hauteskunde administrazioa, funtzionario-izaera, C1 azpitaldea, Administrazio Orokorreko eskala.



19. Erregistro Administrazioa, funtzionario-izaera, C1 azpitaldea, Administrazio Orokorreko eskala.
20. Errenta-administrazioa, funtzionario-izaera, C1 azpitaldea, Administrazio Orokorreko eskala.
21. Alkate-idazkaritzako idazkaria, funtzionario-izaera, C1 azpitaldea, Administrazio Orokorreko eskala.
22. Hirigintza-administrazioa, funtzionario-izaera, C1 azpitaldea, Administrazio Orokorreko eskala.
23. Diruzaintza-administrazioa, funtzionario-izaera, C1 azpitaldea, Administrazio Orokorreko eskala.
24. Droga Gaietako Administrazioa, funtzionario-izaera, C1 azpitaldea, Administrazio Orokorreko eskala.
25. Pertsonal Zerbitzuetako administrari laguntzailea, funtzionario izaera, C2 azpitaldea, Administrazio Orokorreko eskala.
26. Ibilgailuen Ataleko administrari laguntzailea, funtzionario-izaera, C2 azpitaldea, Administrazio Orokorreko eskala.
27. Osasun publikoko jagolea, funtzionario-izaera, C2 azpitaldea, Administrazio Orokorreko eskala.
28. Trafikoko jagolea, funtzionario-izaera, C2 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
29. Ordenantzetako jagolea, funtzionario-izaera, C2 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala.
30. Musika Bandako zuzendaria, lan-izaera, A1 azpitaldea.
31. Gizarte Ongizateko teknikaria, lan-arlokoa, A2 azpitaldea.
32. Euskaltegiko irakaslea, lan-izaera, A2 azpitaldea.
33. Musika Eskolako irakaslea, piano-lengoaia musikala espezialitatea, lan-izaera, A2 azpitaldea.
34. Musika Eskolako irakaslea, biolina espezialitatea, lan-izaera, A2 azpitaldea.
35. Musika Eskolako irakaslea, gitarra espezialitatea, lan-izaera, A2 azpitaldea.
36. Musika Eskolako irakaslea, txistua espezialitatea, lan-izaera, A2 azpitaldea.
37. Musika Eskolako irakaslea; espezialitatea: akordeoia eta trikitixa, lan-izaera, A2 azpitaldea.
38. Musika Eskolako irakaslea, txirula espezialitatea, lan-izaera, A2 azpitaldea.
39. Musika Eskolako irakaslea, klarinetea espezialitatea, lan-izaera, A2 azpitaldea.
40. IMFPBko irakaslea, lan-izaera, A2 azpitaldea (2. HE).
41. IMFPBko irakaslea, lan-izaera, A2 azpitaldea (3. HE).
42. Musika-eskolaren administrazioa, lan-izaera, C1 azpitaldea.
43. Gizarte-zerbitzuen administrazioa, lan-izaera, C1 azpitaldea.
44. Kultura Administrazioa, lan-izaera, C1 azpitaldea.
45. Gizarte-zerbitzuetako administrari laguntzailea, lan-izaera, C2 azpitaldea.
46. Delineatzailea, lan-izaera, C1 azpitaldea.
47. Kontsumo Ikuskaritza, lan-izaera, C1 azpitaldea.
48. Errementaria, lan-izaera, C2 azpitaldea.
49. Arotza, lan-izaera, C2 azpitaldea.
50. Iturgina, lan-izaera, C2 azpitaldea.
51. Argiketaria, lan-izaera, C2 azpitaldea.
52. Pintorea, lan-izaera, C2 azpitaldea.
53. Igeltseroa, lan-izaera, C2 azpitaldea.



54. Gidaria, lan-izaera, C2 azpitaldea.
55. Ibilgailuaren elektromekanikako prestatzailea, lan-izaera, C2 azpitaldea.
56. Estetikako prestatzailea, lan-izaera, C2 azpitaldea.
57. Klarinete-musikaria, lan-izaera, C2 azpitaldea.
58. Eskolako atezaina, lan-izaera, AP azpitaldea.
59. Liburutegiko atezaina, lan-izaera, AP azpitaldea.
60. Liburutegiko ordenantza, lan-izaera, AP azpitaldea.
61. Gizarte-zentroko atezaina, lan-izaera, AP azpitaldea.
62. Bulego orokorretako atezaina, lan-izaera, AP azpitaldea.
63. Mandatari-telefonista, lan-izaera, AP azpitaldea.
64. Fatxadak garbitzeko langilea, lan-izaera, AP azpitaldea.
65. Langile balioaniztuna, lan-izaera, AP azpitaldea.
66. Dumper-gidaria, lan-izaera, LM azpitaldea.
67. Lurperatzailea, lan-izaera, AP azpitaldea.

Bigarrena: Portugaleteko Udaleko langileak hautatzeko merezimendu-lehiaketako hautaketa-prozesuen deialdia egitea, lehenengo xedapen-puntuari zenbakituak, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko maiatzaren 18an onartutako Enplegu Publikoaren Eskaintzaren arabera (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 97. zenbakia, 2022ko maiatzaren 23koa).

Hirugarrena: Erabaki honen xedapen-zatiaren laburpena eta oinarri orokorrak eta bereziak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udalaren webgunean eta Portugaleteko Udaleko iragarki-tauletan argitaratzea, bai eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarriaren laburpena ere, eta eskabideak aurkezteko epea irekitzea, azken horretan argitaratzen den egunetik aurrera.

Laugarrena: Ebazpen hau Giza Baliabideen Sailari eta langileen ordezkariari helaraztea.

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko abenduaren 23an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez, honako hau xedatu da:

Lehen: Portugaleteko Udalaren zerbitzuko langileak hautatzeko merezimendu-lehiaketako hautaketa-prozesuen oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoetan antzemanda-ko akats materialak zuzentzea, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarri jarraikiz. Xedapen horiek Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko azaroaren 30eko Erabakiaren bidez onartu ziren.

Bigarrena: Zuzendu diren oinarri orokorrak eta bereziak, erabaki honetan jasotakoaren arabera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udalaren webgunean eta Portugaleteko Udaleko iragarki-tauletan argitaratzea, eta iragarkiaren laburpen bat Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, bai eta eskabideak aurkezteko epea irekitzea ere, azken horretan argitaratzen den egunetik aurrera.

Hirugarrena: Ebazpen hau Giza Baliabideen Sailari eta langileen ordezkariari helaraztea.

Portugaleten, 2022ko abenduaren 23an.— Alkatea, Mikel Torres Lorenzo



**ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO HAUTAKETA PROZESUAK ARAUTZEN DITUZTEN
OINARRI OROKORRAK, ABENDUAREN 28ko 20/2021 LEGEAREN 6. eta 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK
ERATORRITAKOAK**

1- Oinarrien xedea

Oinarri hauen xedea da hautaketa-prozesuak arautuko dituzten arau orokorrak ezartzea, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko. Lege hori Portugaleteko Udaleko enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa da, eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren arabera arautuko da.

Hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak dagozkien deialdietako oinarri espezifikoetan arautuko dira, baina gutxienez honako hauek jaso beharko dituzte:

Deitutako plazen identifikazioa, kopurua eta lotutako lanpostuak, eta, hala badagokio, sartzeko txanda.

Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasaren zenbatekoa.

Deitutako plazei lotutako lanpostuak eskuratzeko baldintzak: sartzeko titulazioa, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, baita sartzeko beste baldintza batzuk ere (hizkuntzak, informatikako ezagutzak, etab.).

Merezimendu baloragarriak eta horien baremoa.

Emakumeen lehenatasun-klausula aplikatze-ari edo ez aplikatzeari buruzko aurreikuspena.

20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiari honako araudi hau aplikatuko zaio:

Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Berritzeko Neurriei buruzkoa.

6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa

7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari kidego eta eskalena, Euskal



Autonomia Erkidegoko toki-administrazioei aplikagarri zaizkien guztian.

Osagarri gisa, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartutako Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzupeko langileak sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak hornitzeko eta lanbide-sustapena egiteko Araudi Orokorra.

10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzekoa.

86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasun eraginkorrerakoa.

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzena.

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Dokumentuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarrii buruzkoa.

Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Oinarri arautzaile hauek.

20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesua lehiaketa-sistemaren arabera artikulatuko da.

Prozesu horretan txanda libre bat aurreikusten da.

2- Parte hartzeko baldintza orokorrak

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozeduran parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Europar Batasuneko estatu kideren bateko edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzekoa den beste estaturen bateko nazionalitatea edo nazionalitate espainiarra izatea, Europako Erkidegoa eratzeko Itunean definituta dagoen moduan.

b) Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, betiere Zuzenbidetik bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta bi ezkontideak Zuzenbidetik bananduta ez badaude, ondorengoak 21 urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak badira eta beren kontura bizi badira (5/2015 LED, 57. artikulua).

c) Aurretiazko eskaera egitea.

d) Eskuratu nahi den eskalako edo lan-kategoriako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

e) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirako gehieneko adina ez gainditzea.

f) Diziiplina-espedientearen bidez Administrazio Publikoetako edo Autonomia Erkidegoetako Erakunde Konstituzional edo Estatutarioetako edozein zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judicial bidez enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen kidego edo eskaletara edo lan-kontratuko langileen kategorietara iristeko desgaitasun absolutu edo berezia ez izatea.

g) Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ezgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikora iristea eragozten duen diziiplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea.

h) Eskatutako titulazioa izatea, edo titulazio hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea. Titulazio hori berariazko oinarrietan adieraziko da. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

i) Atzerrian lortutako titulazioa duten hautagaiek dagokion baliozkotzea edo homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria dutela egiaztatu beharko dute.

j) Hautaketa-prozesuaren barruan lanposturako (lan-kontratuko langileen kasuan) edo plazari lotutako



lanposturako (funtzionarioentzat gordetako plazetarako) eskatzen den hizkuntza-eskakizuna duela egiaztatzea, edo hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen-probak gainditzea. Eskakizun hori betetzeko data dagokion hautaketa-prozesuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatze proba egiten den eguna izango da.

k) Herri Administrazioen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea. Hargatik eragotzi gabe kargu publikoa edo jarduera pribatu bateraezina betetzen dutenek aipatutako lege-arauetan aipatzen den aukera-eskubideaz baliatzea.

l) Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik tasa ordaindu izana, parte hartzen duen dagokion lan-prozesuari, eskalari edo kategoriari dagokiona; eta zenbatekoa oinarri espezifikoetan zehaztuta egongo da.

m) Deialdia egin duen Udalean ez izatea karrerako funtzionarioak edo eskala, azpieskala edo kategoría bereko lan-kontratuko langile finkorik.

n) Oinarri espezifikoetan eskatzen den beste edozein betekizun.

Hautaketa-prozesu honetako hautagaiek berariaz onartu beharko dute beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta adierazitako helbururako erabiltzea.

2.1 – Baldintzak betetzeko datak.

Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretan eta espezifikoetan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik, 8.1 oinarrian aurreikusitako salbuespenak izan ezik, eta horiek betetzen jarraitu beharko dute karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzen diren egunean edo plantillako lan-kontratuko langile finko gisa kontratatzen diren egunean.

2.2 – Baldintzak egiaztatze denbora eta modua.

Baldintzak egiaztatze denbora eta modua 8. oinarrian daude ezarrita.

4- Hautatzeko baldintza orokorrak.

Lanpostuak betetzeko baldintzak ezarrita dituzten lanpostuei lotutako plazak ezin izango dituzte, inola ere, baldintzak betetzea egiaztatu ez dutenek bete. Baldintza horiek deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

Deialdi bakoitzean, deialdiko plazei lotutako lanpostuei esleitutako baldintza espezifikoak zerrendatuko dira.

Lanpostu jakin batzuek espezialitate jakin bat eskuratzeko betekizuna badute, deialdien oinarri espezifikoek zehaztuko dute egiaztatze modua.

5.- Lanpostuak esleitzeko baldintza orokorrak.

Epaimahaiak ezin izango du proposatu jende gehiago sartzeara, karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko gisa deitutako plazetatik gora, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

– Izendatu edo karguaz jabetu aurretik hautatutako pertsona batzuek uko egiten badute, edo

– Hautagaiek 15. oinarrian xedatutakoaren arabera eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badute. Edo hautagaiek aurkeztutako agirietatik 2. oinarrian eskatutako baldintzaren bat ez dutela betetzen ondorioztatzen bada. Edo dagozkion zereginak betetzeko eska badute.

Kasu horietan, epaimahaiak hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda erabiliko du eta behar diren hautagaien aldeko izendapen osagarriaren proposamena egingo du. Hori guztia hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendaren puntuazio-ordenaren arabera. Horrela, hautatutzat joko dira aipatutako inguruabarren ondorioz hutsik geratu diren plazen kopuru bera duten hautagaiak.

b) Lanpostuaz jabetzeko anean lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-eskaerak egiten direnean, eta egonkortze-deialdietan plaza lortzeagatik lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-eskaerak egiten direnean, hutsik geratzen diren plazak esleituiko dira. Horretarako, aurreko kasuan bezala, epaimahaiak egindako hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda erabiliko du.

Lanpostuaz jabetzeko anean eszedentzia-egoerara igarotzeko inguruabarrak baliozkoak izateko, izendapen-



proposamena jakinarazi eta gehienez ere 15 eguneko epean egin beharko da eskaera.

6- Argitalpenak eta iragarki-taula.

Hautaketa-prozesuen deialdiak dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratuko dira, eta, gainera, PORTUGALETEKO UDALAREN iragarki-taulan eta webgunean ere bai.

Hautaketa-prozesuan zehar, bere garapenari buruzko informazio guztia PORTUGALETEKO UDALAREN iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da, jakinarazpen ondoreetarako.

7- Eskabideak aurkeztea

7.1- Prozesuan onartzea.

Parte hartu nahi dutenek eskabide-ereduan adierazi beharko dute zein hautaketa-prozesutan parte hartu nahi duten eta zein plaza lortu nahi dituzten, nahiz eta laneko eskala/azpieskala/klase edo kategoria berekoak izan.

Hautaketa-prozesuetan onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira: 1) eskabidea atal guztietan betetzea, 2) epearen barruan aurkeztea eta 3) langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik ordaindu beharreko tasak ordaintzea.

Era berean, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira eskatutako baldintza guztiak, 8.1 oinarrian elkargoko kide egiteari, espezialitateari eta euskararen ezagutzari buruz aurreikusitakoa izan ezik; azken kasu horretan, 8.10 oinarrian aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko da.

7.2. – Eskabideak aurkezteko era.

Eskabideak egoitza elektronikoan deialdiaren fitxan argitaratutako inprimakiaren arabera egingo dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta tasa ordainduz formalizatu beharko dira, ordaintzetik salbuetsita daudenen kasuak izan ezik, 2022ko Ordenantza Fiskalak eta Prezio Publikoetakoaren arabera.

Aurrekoaz gain, eredu ofizial eta normalizatu bat ere egongo da, I. eranskin gisa jasotzen dena eta Portugalete Udalaren webgunean eskuragarri dagoena (lan publikoko eskaintza).

Onartuak izateko eta dagozkien hautaprobetan parte hartzeko, nahikoa izango da eskabide-orrrian bere erantzukizunpean adieraztea eskatutako baldintza guztiak betetzen direla, betiere aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez, eta hori guztia II. eranskinean jasotako erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorritz.

Hautaketa-prozesuan onartua izateko, nahitaezkoa izango da Portugaleteko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langile izateko hautaprobak egiteko behar diren zerbitzuak emateagatik tasa ordainduta izatea. Tasa hori oinarri orokor honen lehenengo paragrafoan xedatutakoaren arabera ezartzen da 2022ko Ordenantza Fiskalak eta Prezio Publikoetakoak.

Eskabidearekin batera honako hauek erantsiko dira:

a) Portugaleteko Udalaren bitarteko funtzionarioek edo aldi baterako langileek Giza Baliabideen Departamentuaren eskutik jasotako "Egonkortasunerako datuen ziurtagiria" aurkeztu beharko dute. Ziurtagiria bakoitzak bere Erregistro Pertsonalean eskuratu ahal izango du, eta bertan, langilearen esperientziari, datu akademikoei eta abarri buruz Udalak duen informazioa jasoko da.

Hala ere, adierazitako dokumentuan jasota ez dagoen edozein betekizun eskabidearekin batera aurkeztu beharko da. Hori egin ezean, ezin izango da hautaketa-prozesuan parte hartu. Bestalde, merezimendurik edukiz gero eta aipatutako Ziurtagirian agertzen ez badira, eskabidean Auto-Balorazioko formularioaren bidez (III. eranskina) frogatu eta aurkeztu beharko dira; bestela, ezingo dira zortzigarren oinarrian xedatutakoaren arabera baloratu.

b) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eskuratzeko moduan dagoela egiaztatzen duen titulua edo dokumentazioa, bai eta deialdiaren Oinarri Espezifikotik eskatzen direnak ere.

c) Auto-Balorazio formularioa (III. eranskina), behar bezala beteta eta sinatuta, eta agindutako egiaztagirien kopia, Auto-Balorazio formularioan agertzen den ordenaren arabera. Formularioa hautagai guztiek bete beharko dute, "Egonkortasunerako datuen ziurtagiria" aurkezten dutenek barne.

d) Hautaketa-prozesurako beharrezkoak diren gainerako agiriak aurkezteko modu bakarra hamalagarren oinarrian adierazten dena izango da.

Eskabidearen laukian adierazi beharko da zein txandatan parte hartu nahi den: a) Librea.



Euskararen informazioari buruzko eskabidearen epigrafean, egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna jasoko da nahitaez. Horrez gain, euskara-azterketa egin nahi duenak, zein maila egiaztatzeko azterketa egin nahi duen berariaz zehaztu beharko du.

7.3.- Eskabideak aurkezteko modua.

7.3.1 Eskabideak eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko tokiak:

a) Eskaera elektronikoa egoitza elektronikoa:

<https://www.portugalete.org/eu-ES/Zerbitzuak/Giza-Baliabideak/Oriak/OPE.aspx>

Aurkezpen elektronikoa aukeratuz gero, programak onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitarteko bat eduki beharko duzu.

b) Aurrez aurreko eskaera: Udal bakoitzak aukeratuko du, bakoitzaren ordenantzaren arabera.

Udaleko erregistro eta herritarren arretarako bulegoan, kokatuta:

- Erregistro Orokorra. Plaza del Solar z/g. Astelehenetik ostiralera 8etatik 14ak arte.
- Herritarren Arretarako Zerbitzua. San Roke Enparantza, 11. lok. Astelehenetik ostiralera 14:30 etatik 20:15ak arte. Larunbatak 9:00etatik 13:45ak arte.

7.3.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira.

Administrazioarekin elektronikoki harremanetan jartzera behartuta dauden legezko langileen kasuan, aurkezpena egoitza elektronikoa egingo da.

Udaleko Alkatezara joko dute. Antzeman daitezkeen egitatezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edota interesdunak eskatuta.

Hautagaiek eskabidean emandako informazio guztia tratamendu-jarduera batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeko baino ez da erabiliko. Tratamendu-jarduera horren erabilera eta funtzionamendua Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean aurreikusitakora egokituko dira. Ofizioz egiaztatu edota espedientean sartuko dira, interesdunak berariaz kontrakoa adierazi ezean, honako baldintza/informazio hauek:

Nortasun-datuak egiaztatzea

Titulazio akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak)

Hizkuntza-eskakizun altuena (Euskara)

Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen bidez (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) egindako eta gainditutako ikastaroen zerrenda.

Gidabaimenak (DGT) edo IT Txartelak (erakunde ziurtatzailea)

Aurkeztu beharreko agiriak deialdia egin duen Udalaren esku daudenean, ez da beharrezkoa izango berriro aurkeztea, betiere agiriak zein egunetan eta zein bulegotan entregatu diren adierazten bada, eta prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

7.3.3.- Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik tasak ordaintzeko modua (berariazko araudiak hala aurreikusten duen udalaren).

7.3.3.1 Tasa nominalki eta banan-banan ordainduko da hautaketa-prozesu bakoitzerako, eta kuota honakoa izango da:

A1 Azpitaldea: 3,45 euro.

A2 Azpitaldea: 3,30 euro.

C1 Azpitaldea: 2,20 euro.

C2 Azpitaldea: 1,70 euro.

E Azpitaldea: 1,15 euro.

7.3.3.2. Tasa autolikidazio-erregimenean eskatuko da, eta sarrera erakunde laguntzaileetako edozeinen bidez



egin ahal izango da.

7.3.3.3. Eskabideak aurkezteko epean tasa ordaintzen ez bada edo osorik ordaintzen ez bada, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

7.4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hogeitaz (20) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira.

7.5.- Eskabideen akatsak.

Eskabidea garaiz eta behar bezala aurkeztean ez bada, hautagaia kanpoan geratuko da.

Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikularekin bat etorritik, eskabideetan akatsen bat egonez gero, interesdunari eskatuko zaio, udaletxeko iragarki-taulan eta iragarkia jarritik <https://www.portugalete.org/eu-ES/Orriak/default.aspx> webgunean (enplegu publikoaren eskaintza), hamar egun balioduneko epean dokumentazio falta zuzen dezan, hautagaia behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenaren arabera. Era berean, jakinarazi egingo zaio, hala egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

Hautaketa-prozesuak eskatzen duen dokumentazio hori eta gainerako dokumentazioa zazpigarren eta hamalagarren oinarrietan adierazten den moduan bakarrik aurkeztuko dira.

Osorik edo zati bat ordaindu ez bada zuzendu ahal izango da soilik Eskatzaileak alegatutako salbuespenaren onuradun izateko baldintzak betetzea buruz egindako akatsaren ondorio denean. Horretarako, hamar eguneko epea emango zaio pertsonari akatsa zuzentzeko.

8. – Betekizunak eta merezimenduak. Erreferentzia-datak, deskribapena, alegazioa eta egiaztapena.

8.1. – Merezimenduak betetzeko erreferentzia-datak eta parte hartzeko baldintzak.

Alegatzen diren merezimenduak eta betekizunak edukitzeko erreferentzia-data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da, honako kasu hauetan izan ezik:

- Euskararen ezagutza, 8.10 oinarrian ezarritakoaren arabera egiaztatuko beharko dena.
- Dagokion elkargo profesionalean elkargokide izatea, lanbide arautu bati dagozkion eginkizunak betetzen dituzten eskalak edo lanpostu zehatzak direnean. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatuko beharko da hori.

8.2. – Eskakizunak eta merezimenduak alegatzea.

Parte hartzeko baldintza orokorrak, bai eta ezgaitasuna duten pertsonak sartzeko txandari dagozkion baldintza espezifikak, deitutako plazei lotutako lanpostuen betekizun espezifikak eta merezimenduak ere, eskabideak aurkezteko epean alegatu beharko dira.

8.3. – Eskakizunak eta merezimenduak egiaztatzea.

8.3.1. – Epaimahai kalifikatzaileak alegatutako merezimenduak egiaztatuko ditu, kasuan kasu, dagozkion erregistroei, administrazio publikoetako datuak kontsultatzeko plataformari edo ziurtagiria ematen duen erakundeari kontsulta eginez.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzailearen aurkakotasun arrazoitua agertzen bada eta tratamendu-jarduketaren ardura duen organoak ikusten badu.

Aurkakotasun arrazoitua agertuz gero, aurkakotutako dokumentuak aurkeztu beharko dira aurkakotasunarekin batera.

8.3.2. – 14. oinarrian xedatzen den bezala, hautatutako pertsonen, karrerako funtzionario edo lan-kontratutako langile finko izendatu aurretik, honako merezimendu eta baldintza hauek betetzen dituzten agiriak aurkeztu



beharko dituzte:

epaimahai kalifikatzaileak ezin izan du egiaztapenik egin, edo hautagaiak egiaztapen horren aurka jo du eta organo eskudun jakitun da. Hala ere, epaimahai kalifikatzaileak prozeduraren aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du dokumentazio hori aldeztetik aurkezte. Kasu horretan, dokumentazioak oinarri orokor hauen 14. oinarrian ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

8.4. – Ezgaitasuna duten pertsonen sartzeko txandan parte hartzeko baldintza (hala dagokionean).

3.1 oinarrian ezarritako sarbide-txandan parte hartzeko baldintza – % 33ko edo hortik gorako ezgaitasun aitortua dagokion aitortuaren bidez alegatu beharko da, baldin eta aitortuaren euskal administrazio publikoek egin badute.

Aitortuaren beste administrazio publiko batzuek egin badute, aitortuaren kopia soila ere aurkeztu beharko da.

8.5. – Esperientzia eta antzinatasuna.

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuaren esperientzia funtzionalki antzekoak diren plazaiei lotutako lanpostuak lortzeko baloratuko da.

– Deialdia egin duen Udalean egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, eta ofizioz zenbatuko dira.

– Gainerako herri-administrazioetan egindako zerbitzuak egiaztatzeko agiriaren kopia sinple batekin alegatu beharko dira. Dokumentu horrek, administrazio bakoitzak erabakitzen duen eremuan, lan egindako aldiak banakatu beharko ditu, eta plazaiei lotutako lanpostuaren taldea, kidegoa, aukera, eskala, azpieskala, mota edo kategoria eta izena zehaztu beharko ditu.

Ondorio horietarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik eszedentzia-egoeran egon diren denbora; lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa modu erantzukidean uztartzea helburu duena, bai eta enplegatu publikoek genero-indarkeriagatik baimenak baliatu dituzten denbora ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikulua araberak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatu zuen lege hori).

8.6. – Titulazioak.

Titulazioen alegazioa, bai betekizun gisa, bai merezimendu gisa, dagokion izapidean deklaratu egingo da, 8.2.2 paragrafoan xedatutakoaren arabera.

Atzerriko tituluaren kasuan, tituluaren kopia soila ere aurkeztu beharko da, bai eta homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria ere, kalifikazio-epaimahaiak hala eskatzen duenean.

8.7. – Hizkuntzak.

Abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotzen diren tituluak eta ziurtagiriak baino ez dira baloratuko. Errege-dekretu horrek, oinarritzko izaerarekin, hainbat ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen eta errege-dekretuko arteko baliokidetasunak ezartzen ditu, betiere horiek lotura badute deitutako plazaiei lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin.

– Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako tituluak eta ziurtagiriak merezimenduak alegatzeko epean aurkeztu beharko dira.

– Beste erakunde batzuek emandako tituluak eta ziurtagiriak. Aitortuaren gain, egiaztagiria kopia soila ere aurkeztu beharko da.

8.8. – Informatikako ezagutzak.

Informatikako ezagutzak IT Txartela ziurtagiriaren sistemaren bidez egiaztatuko dira, eta merezimenduak alegatzeko epean alegatu beharko dira.

8.9. – Karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko prozeduretan probak gaintzea.

Merezimenduak alegatzeko izapidean egindako deklarazioaren bidez alegatuko dira, data zehatzak eta erreferentziak EPE adieraziz, eta ofizioz baloratuko dira, oinarri espezifikoetan ezartzen diren baldintzetan,



honako merezimendu hauek:

– Deialdia egin duen Administrazioan karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko prozeduran oposizio-fasea gainditzea, plazarik lortu gabe, baldin eta Enplegu Eskaintza Publikoaren bidez egin bada eta horren deialdia BOEn argitaratu bada.

8.10. – Euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Euskara-azterketa nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko eta borondatezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan, eta ez baztertzaila gainerako lanpostuetan. Euskararen derrigorrezko azterketa eta azterketa baztertzaila gainditzen edo egiten ez duten hautagaiek hautaketa-prozedurarekin jarraituko dute derrigortasun hori duten lanposturik ez duten lanpostuetan, eta, hala badagokio, ariketa honetan lortutako kalifikazioa zenbatuko da.

PORTUGALETEKO UDALAn hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu beharko parte hartzen duten hautaketa-prozesuan, ezta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta daudenean ere. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea. Dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskara-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzei salbuesteari buruzkoa da eta salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan dagoeneko agertzen denean aplikatzen da.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen ez badira salbuespen horretatik kanpo daude eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da, 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuei dagokienez.

Nolanahi ere, edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri egiaztatzeko gehieneko epea euskara-ariketa egiten den eguna izango da.

Dagozkion egiaztapenak egiteko, interesdunak berariaz emango dio baimena Portugaletako Udalari egiaztapena egiaztatzeko edo aipatutako erregistroan salbuesteko.

Edonola ere, interesdunak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsulta ditzake bere datuak, honako esteka honen bidez: <https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>

Hizkuntza-eskakizunen ziurtagiri eta titulu baliokideak honako hauek zehazten dira: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena. Eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartu eta euskarazko tituluarekin eta ziurtagiriekin egiaztatzei salbuesteko dena.

8.11. – Lanpostuen betekizun espezifikoak.

Lanpostuen zerrendan betekizun espezifikoak esleitura dituen plaza bati lotutako lanpostu bat esleitu ahal izateko, hautagaiek alegazioa egin beharko dute 8.2 oinarrian ezarritako epean, oinarri espezifikoetan horietako bakoitzerako zehazten den moduan.

9- Hautagai-zerrendak onartzea

9.1.- Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta eskabideetako akatsak zuzentzeko izapidea amaitu ondoren, Alkatetzak ebazpena emango du behin betiko onarpen, baztertze eta atzera egiteen zerrendak onartzeko, hautagaiak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorritik. Adierazpen hori Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, Udaleko iragarki-taulan eta <https://www.portugalete.org/eu-ES/Zerbitzuak/Giza-Baliabideak/Orriak/OPE.aspx> webgunean argitaratuko da.

Zerrenda hori eskatzaile bakoitzak eskabidean betetako erantzukizunpeko adierazpeneko datuen arabera egingo da.

Zerrendetan honako hauek jasoko dira: hautagaien izena eta bi abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege



Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, baita prozesutik kanpo geratzen diren pertsonak ez onartzeko arrazoia ere.

Gainera, zerrenda horietan argitaratuko da, behin-behinean, Autobalorazio Formularioan lortutako puntuazio osoa, hautagai bakoitzak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenean adierazitakoaren arabera, Epaimahai Kalifikatzaileak baloratuko dituen eskabide-kopurua (eta horiekin berdinduta daudenak) zehazteko.

9.2.- Onarpenen, bazterketen eta atzera egiteen zerrendak onartzen dituen Alkatetzaren ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Alkatetza-Lehendakaritzari, hilabeteko (1) epean, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Baztertutako pertsonak merezimenduaren baloraziora aurkeztu ahal izango dira, baita euskara-proba egitera ere, kautelaz, baldin eta kanporatzearen aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela egiaztatzen badute eta baldin eta egun horretarako errekurtsoa ebatzi ez bada.

Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean jarritako errekurtsoa ebatzi ez bada, interesdunek kautelaz egin ahal izango dute euskara-proba. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsoa ezesten bada.

9.3.- Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei aitortzen zaienik hautaketa-prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Azkenean pertsona hautatua izango balitz, izendapenaren aurretik aurkeztu behar den dokumentaziotik baldintzaren bat ez dutela ondorioztatzen bada, prozedura honetan parte hartetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte.

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakiten badu deialdian parte hartzeko baldintzaren bat betetzen ez duten hautagaiak daudela, interesdunari entzun ondoren, baztertzeko proposamena egin beharko dio organo eskudunari, eta parte hartzeko eskabidean pertsona horrek egindako zehaztasun ezak edo faltsutasunak jakinarazi beharko dizkio.

10. – Hautaketa-prozedura

10.1.- Hautaketa-prozedura lehiaketa izango da, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdi honetan. Bi txanda egongo dira: librea eta ezgaitasuna duten pertsonena, deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

Lehiaketa honetan, Auto Balorazioko Formularioan (III. Eranskina) alegatu eta aurkeztutako merezimenduak aztertu eta baloratuko ditu Epaimahai Kalifikatzaileak, hamargarren oinarri honetan eta deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera horrela definitutako eskabide-kopurua aintzat hartuta.

Alkatetzaren onarpenen, bazterketen eta atzera egiteen ebazpenetik eratorritako zerrenda Auto Balorazioaren Formularioan lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuko da, Epaimahai Kalifikatzaileak baloratuko dituen eskabide-kopurua (eta horiekin berdinduta dauden guztiak) zehazteko, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera eta kategoria bakoitzerako deitutako plazen arabera, honako eskala honen arabera:

- Deitutako 5 plaza edo gutxiago: deitutako plazak bider 5
- Deitutako 5 plaza baino gehiago eta gehienez 10: deitutako plazak bider 4
- Deitutako 10 plaza baino gehiago: deitutako plazak bider 3

Aurrekoari kalte egin gabe, hautagai-zerrenda bideragarririk ez badago, Alkatetzaren onarpen, bazterketa eta atzera egiteen ebazpenetik eratorritako zerrenda erabiltzea erabakitzen bada, jarduketa hori bertan agertzen den puntuazio-ordena zorrotza errespetatuz egingo da.



Eskaera-orrietan jasotako merezimenduak neurtzeko eskalak barnean hartuko ditu hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten pertsonak, hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa den lanpostuetan. Baina kasuan kasuko euskara-azterketa egiteko izena eman badute eta azterketa gaindituz egokitu litzaikeen puntuazioa adierazita. Derrigortasunik gabeko plazen kasuan ere egokitu litzaikeen puntuazioa emango zaio.

Nolanahi ere, alegatzen eta aurkezten diren merezimenduak zenbatzeko erreferentziazko azken data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da, 8.1 oinarrian aurreikusitako salbuespenarekin.

10.2.- Euskara-azterketa nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duen lanposturen bat duten lanpostuen kasuan, salbu eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta badute, eta borondatezkoa eta ez baztertzaila gainerako lanpostuetan. Euskararen derrigorrezko azterketa eta azterketa baztertzaila gainditzen edo egiten ez duten hautagaiek hautaketa-prozedurarekin jarraituko dute derrigortasun hori duten lanposturik ez duten plazetan, eta, hala badagokio, ariketa honetan lortutako kalifikazioa zenbatuko da.

Euskara-azterketa egin ahal izango dute prozesuan parte hartzen duten pertsonak, baldin eta lehiaketa-fasean oinarri espezifikoetan adierazitako gutxieneko puntuazioa lortu badute.

Portugaleteko Udalean hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu beharko parte hartzen duten hautaketa-prozesuan, ezta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta daudenean ere. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskara-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteari buruzkoa), salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan dagoeneko agertzen denean.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen ez badira, ezingo dira aukera horretaz baliatu eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute, 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan.

Dagozkion egiaztapenak egiteko, interesdunak berariaz baimena emango dio Portugalete Udalari egiaztapena egiaztatzeko edo aipatutako erregistroan salbuesteko.

Edonola ere, interesdunak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsulta ditzake bere datuak, esteka honen bidez: <https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>

Deialdiko euskara-azterketa egin arte egiaztatu ahal izango da lortutako hizkuntza-eskakizuna. Eta eskabidean hala eskatu dutenek bakarrik aurkeztu ahal izango dute.

10.3. – Lehiaketa-fasearen kalifikazioa

Deialdiko merezimenduen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du lehiaketa-fasearen balorazioa.

10.4. – Lehentasun-klausula.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, (martxoaren 3ko 1/2022 Legeak,



Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarren ez aldatu duena), trebakuntza-berdintasuna badago, emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeen ordezkaritza % 40tik beherakoa den eskaletan, salbu eta beste hautagaiak sexuaren ziozko diskriminaziorik ez dakarten arazoak dituenean, neurri hori ez aplikatzea justifikatzen badute, hala nola enplegua lortzeko eta sustatzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Horretarako, hautagaien artean gaitasun bera dagoela ulertuko da hautaketa-prozesuaren azken puntuazioan berdinketa gertatzen denean, hau da, dagozkion merezimenduak batu ondoren.

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan, deialdia egin duen udalak zehaztuko du artikuluko horretan xedatutakoa aplikatuko den ala ez, dagozkion eskala/azpieskala/klasean edo kategorian emakumeek duten ordezkartzan oinarrituta.

10.5. – Berdinketa hausteko irizpideak.

Aurreko 10.4 atalean xedatutakoari kalterik egin gabe, gainera, berdinketak gertatzen badira, ordena ezartzeko kontuan hartuko da, lehenik eta behin, deialdia egin duen Udalean zerbitzu-denbora gehien eman duen hautagaiaren alde, deitzen den eskala, azpieskala edota kategoria berdinetan; bigarrenik, deialdia egin duen Udalean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde; hirugarrenik, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde, eta, azkenik, berdinketak jarraitzen badu, zozketaren sistemara joko da.

10.6. – Prozedura eta erreklamazioak.

Merezimenduak baloratu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak behin-behineko kalifikazioak argitaratzeko aginduko du, deitutako lanpostuen hizkuntza-eskakizuna kontuan hartuta.

Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute, 6. oinarrian adierazitako lekuetan, egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, eta aurkeztutakoak ebatzita, epaimahai kalifikatzaileak argitaratzeko agindua emango du, eta alkatetzara bidaliko ditu gainditutako azken kalifikazioak eta eskaintako lanpostuak.

Deitutako eskala edo kategoria bakoitzeko gaindituen behin betiko zerrendak argitaratuko dira, deitutako lanpostuen hizkuntza-eskakizuna kontuan hartuta. Zerrenda horietan hautagai bakoitzaren lehentasun-ordena adieraziko da, lortutako puntuazioaren arabera eta, hala badagokio, lehentasun-klausula eta berdinketa hausteko irizpideak aplikatuta.

11. – Destinoa aukeratzea

Deialdi bakoitzerako hautagaien behin betiko kalifikazioa egin eta argitaratu ondoren, hamar egun balioduneko epea ezarriko da destinoa aukeratzeko.

11.1. – Parte-hartzaileak.

Lanpostuak aukeratzeko prozesu honetan parte hartuko duten pertsonak izango dira deialdi, txanda eta hizkuntza-eskakizun bakoitzeko epaimahaiak zehazten duen lehentasun-hurrenkera bera edo txikiagoa dutenak. Kopuru horrek ziurtatu beharko du hautatutako plaza guztien esleipena.

Prozesu honetan parte hartuko duten pertsonen zerrenda nominalak behin betiko kalifikazioei buruzko epaimahai kalifikatzailearen ebazpenean sartuko dira, eta 6. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko dira.

Hautaketa-prozesuan parte hartzearen ondoriozko eskubideak galduko dituzte destinoa oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera garaiz eta moduan aukeratzen ez dutenek.

11.2. – Eskaintako plazen zerrenda

Eskala/azpieskala/kategoria bakoitzerako eskaintako plazen zerrendan honako hau adieraziko da: lotutako lanpostuaren izena, esleitutako destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna,



derrigortasun-data eta berariazko betekizunak.

11.3. – Destinoak aukeratzeko eskaerak.

Lanpostuak elektronikoki aukeratzeko, <https://www.portugalete.org/eu-ES/Zerbitzuak/Giza-Baliabideak/Orriak/OPE.aspx> (e) ko inprimakia bete beharko da.

Destinoa aukeratzeko eskaeretan, ezgaitasuna duten pertsonentzako sarrera-txandan parte hartzen duten pertsonen lanpostu edo lanpostuak egokitzeko eskatu ahal izango dute. Eskatutako egokitzapena bidezkoa den zehazteko eta eskatutako lanpostuek esleitura dituzten zereginak betetzeko, deialdia egin duen Udaleko Prebentzio Zerbitzuak dei egin ahal izango die hautagaiei.

Era berean, izapide hori bete ahal izango da 7.3 oinarrian adierazitako Udalaren bulegoetara joanda, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bulegotan aurkeztuta.

11.4. – Aukeratutako lanpostuen antolamendua.

20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuan destinoa aukeratzeko prozeduran parte hartzera deitutako pertsonen lanpostu-zerrenda bakarra egingo dute, eta, bertan, beren lehentasunen arabera, eskainitako plazei lotutako lanpostuak ordenatuko dituzte, hizkuntza-eskakizunaren eta, hala badagokio, lanpostuei esleitutako baldintza espezifikoaren arabera.

12. – Destinoak esleitzea.

Zerrenda bat egingo da deialdi bakoitzeko, eta, horren barruan, hizkuntza-eskakizun bakoitzeko eskainitako lanpostu bakoitzeko, prozesuan lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuta, handienetik txikienera. Zerrenda horren ordena erabakigarria izango da destinoak esleitzeko, 11.5 oinarrian aurreikusitakoa izan ezik.

13. – Hautatutako pertsonen zerrenda.

Destinoak aukeratzeko epea amaitutakoan, hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko plazen behin-behineko zerrenda egingo da, eskatutako baldintzak, hautagai bakoitzaren puntuazio-ordena eta adierazitako lehentasunak kontuan hartuta. Zerrenda hori Alkatetzaren/Lehendakaritzaren ebazpen bidez argitaratuko da, 6. oinarrian adierazitako lekuetan, eta 10 egun balioduneko epea ezarriko da erreklamazioetarako eta hautagaiek eskatutako lanpostuen baldintza bereziak zuzentzeko.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, ebazpena Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta bertan adieraziko da hautatutako pertsonen eta esleipenaren xede diren lanpostuen behin betiko zerrendak 6. oinarrian adierazitako lekuetan egongo direla ikusgai.

14- Dokumentuak aurkeztea.

Proposatutako hautagaiak deialdiko Oinarrietan eskatzen diren hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzen egiaztatutako aurkeztu beharko ditu Udaleko Erregistroan, 20 egun balioduneko epean, gainditutakoan zerrenda



argitaratzen denetik zenbatzen hasita:

1. Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta diziplina-espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik kendu ez dutela dioen adierazpena.

2. Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun-arrazoiren batean sartuta ez egotearen adierazpena.

3. Korporazioak zehazten dituen zerbitzu medikoek emandako ziurtagiri medikoa, oinarri hauen arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena. Ezgaitasuna duten hautagaiak organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, izaera hori eta lanpostuaren berezko eginkizunak betetzeko gaitasuna egiaztatzen dituen.

4. Deialdiaren oinarrietan eskatzen diren gainerako betekizun espezifikoaren fotokopia konpultsatua aurkeztea.

Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamazio horiek ebatzi ondoren, Bizkaiko aldizkari ofizialean argitaratuko da, eta bertan adieraziko da hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko lanpostuen behin betiko zerrendak 6. oinarrian adierazitako lekuetan egongo direla ikusgai.

15.- Dokumentuak aurkeztea.

Proposatutako izangaiek udal deitzailearen erregistroan aurkeztu beharko ditu deialdiaren oinarrietan hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzen egiaztagiria, 20 egun baliodunen buruan, gaindituen zerrenda argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita:

15.1. Kargu publikoak betetzeko gaitasuna dutela eta Herri administrazioaren zerbitzutik kanpo diziplinazko espedienteengatik geratu ez direla frogatzeko aitorpena.

15.2. Herri Administrazioen Zerbitzupeko Langileen Bataerazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bataerazintasunik ez daukala adierazten duen aitorpena.

15.3. Mediku-ziurtagiria, udalbatzak zehazten dituen zerbitzu medikoek emana, oinarri hauen arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena. Desgaitasuna duten izangaiek organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, lanpostuaren berezko eginkizunak betetzeko gaitasuna eta izaera hori egiaztatzen dituen.

15.4. Deialdiaren oinarrietan eskatutako gainerako berariazko baldintzei buruzko frogagiria, fotokopiaren bidez.

Adierazitako dokumentuak aurkezteko ezintasuna behar bezala justifikatzekotan, hautagaiak deialdian eskatutako betekizunak betetzen dituela egiaztatu ahaldu du zuzenbidean onar daitekeen edozein frogaren bidez. Funtzionario publikoak edo lan-kontratutako langileak salbuetsita egongo dira aurreko izendapena lortzeko frogatutako baldintzak eta betekizunak agiri bidez justifikatzetik, eta Ministerioaren, autonomia erkidegoko administrazioaren, toki-udalbatzaren edo haien mendeko erakunde publikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, haien egoera eta zerbitzu-orrian agertzen diren inguruabar guztiak egiaztatuz. Arestian aipatutako epean, ezinbesteko arrazioen kasuan izan ezik, proposatutako hautagaiak dokumentazioa aurkezten ez badu edo eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, ez da izendatuko eta jarduera guztiak baliorik gabe geldituko dira, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean azaldutako faltsukeriarengatik izan dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

16. Kontratazioa edo izendapena, lanpostuaren atxikipena eta lanpostuaz jabetzea:

16.1. Epaimahaiak egindako proposamena eta izangaiek aurkeztutako dokumentazioa ikusita, baldin eta oinarriek diotenarekin bat badatoz, Alkatetzak hautaketa-prozesua arrazoituta ebatziko du, eta, hala badagokio, gainditu duten izangaiek kontratatuko edo izendatuko ditu. Izenpetuko den lan-kontratuak probaldia izango du. Funtzionarioentzat gordetako plazen kasuan, praktiketako funtzionario gisa izendatuko da, praktika aldi bat baitu, 16. oinarrian ezarritakoaren arabera.

16.2. Izendapen- edo kontratazio-ebazpenak lanpostuari atxikitzea ere jasoko du, eta behin-behineko izaera izango du, probaldia edo praktika aldia aurreikusten baita, 16. oinarrian ezarritakoaren arabera.

16.3. Funtzionario izendatutako izangaiek hilabeteko epea izango dute, izendapena Bizkaiko aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, lege ezarritako zina edo agintza egiteko eta udalbatzako idazkariaren aurrean karguaz jabetzeko. Zinik edo agintaritzarik ez egiteak edo karguaz ez jabetzeak eskubide guztiak galtzea ekarriko du, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

17. Probaldia edo praktika aldia:

17.1. Praktika aldi bat ezarriko da funtzionario lanpostuetarako, eta probaldi bat lan-kontratutako langileen plazetarako, kasu zehatz bakoitzean. Kasu horretan, eta aldi horrek dirauen bitartean, kontratatutako pertsonak edo praktiketako funtzionario izendatutakoak normaltasunez beteko ditu bere zereginak, eta ordainsariak negoziazio kolektiboko



indarreko tresnetan ezarritako aurreikuspenen arabera jasotzeko eskubidea izango du. Probaldia edo praktika aldia udal egoitza berean egingo da, Alkatetzak izendatutako karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izango den pertsona baten (edo ebaluazio-batzorde baten) tutoretzapean.

17.2. Probaldiaren edo praktika aldiaren iraupena hemen adierazten dena izango da, taldean eta azpitaldean edo eskalan eta azpieskalan sartzeko eskatzen den titulaziorako parekotzat jotzen den lanbide-talde edo -kategorien arabera:

a) A eta B taldea: 6 hilabete

b) C taldea: 3 hilabete

c) Lanbide-taldeak: 3 hilabete

17.3. Aldi horretan, tutore izendatuak (edo ebaluazio-batzordeak) ahalegina egin beharko du izangaiak prestakuntza praktikoa eskura dezan eta dagozkion funtzioak arian-arian bere gain har ditzan.

17.4. Aldi hori amaitutakoan, tutoreak (edo ebaluazio-batzordeak) txostena egingo du, eta bertan berariaz adierazi beharko du izangaiak probaldia edo praktika aldia gainditu duten. Gainditzeko dutenak karrerako funtzionario izendatuko dira edo lan-kontratu finkoa formalizatuko dute. Bestela, Udalburutzaren ebazpen arrazoitu bidez ez gaitzat joko dira, aldez aurreko entzunaldi-izapidearekin, tutorearen (edo ebaluazio-batzordearen) txostena ikusita, eta ondorioz, karrerako funtzionario izendatzeko eta lan-kontratuko langile finko kontratatzeako eskubide guztiak galduko dituzte.

17.5. Karrerako funtzionario izendapena Bizkaiko aldizkari ofizialean eta lege ezarritako beste edozein lekutan argitaratuko da.

18.– Epaimahaia.

18.1.– Osaera.

Epaimahaia honako hauek osatuko dute: epaimahaiburu batek, epaimahaikide kopuru bakoiti batek, hiru kidek edo gehiagok osatuta, eta idazkariak, eta horien ordezkoeak.

Trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango da epaimahaietan, salbu eta hori egokia ez dela behar bezala justifikatzen bada. Ordezkaritza orekatutzat jotzen da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkariak duenean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera (Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatu zuen lege hori).

Epaimahaiak komeni dela uste badu, aholkua eskatu ahal izango die adituei. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoaren alorreko aholkularitza eman besterik ez dute egingo, epaimahaiarekin lankidetzan ari direnean.

Egokitza jotzen den kasuetan, eta deitutako plazei lotutako lanpostuen berezitasun espezifikoak egiaztatze, hautagaiak alegatutako merezimenduei dagokienez, epaimahaiak Portugaleteko Udaleko teknikarien laguntza izan ahal izango du, behar dituen gai teknikoetarako.

Epaimahaikide-lana norberak egingo du beti, eta ezin izango da inoren izenean edo inoren ordezkari modura jardun.

18.2.– Izendapena.

Epaimahaikideak Alkatetza/Udalburutzak izendatuko ditu. Izendapenak 6. oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko dira, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera.

18.3.– Abstentzioa eta ezespena.

Epaimahaiko kideek ezin izango dute prozesuan parte hartu Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritako kasuetan; eta, orduan, Alkatetza/Udalburutzari jakinarazi beharko diote. Horrez gain, ezin izango dute parte hartu baldin eta deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaprobetan parte hartuko duen hautagairen bat prestatzen jardun badute.



Aurreko kasuren bat gertatzen denean ere, interesdunek epaimahaikideak ezetsi ahal izango dituzte, betiere aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat.

18.4.– Jarduteko arauak.

Epaimahaiak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.-18. artikuluetan jasotakoaren arabera jardungo du. Epaimahaiburuak aginduta, idazkariak bilerarako deia egingo du, eta epaimahaia prozesuak hasi baino behar beste denbora lehenago bilduko da. Epaimahaiaren osaera balioduna izateko, ezinbestekoa da epaimahaiburua eta idazkaria (edo, hala dagokionean, beren ordezkioak) eta gutxienez kideen erdiak bertaratzea.

Epaimahaikideek hitza eta botoa izango dute, idazkaritzan diharduenak izan ezik, azken horrek hitza izango baitu, baina botorik ez.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengo bidez hartuko dira. Epaimahaiburuaren kalitatezko botoaren bitartez ebatziko dira berdinketak.

Epaimahaiburua (edo bere ordezkioa) bertaratu ez bada, gaixo dagoelako, bere kargua hutsik dagoelako edo bestelako lege-arrazoiren bat dagoelako, antzintasun handiena duen edo adinez zaharrena denak hartuko du haren lekua, hurrenkera horretan.

Idazkari titularren edo haren ordezkioaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixo badago edo titularri zein ordezkioari eragiten dien legezko bestelako arrazoiren bat badago, epaimahaikideen gehiengoaren erabakiz aukeratzen den kideak beteko du haien kargua.

18.5.– Ahalmenak.

Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jokatu du, eta bera izango da prozeduraren gardentasun eta objektibotasunaren, proben eduki eta konfidentzialtasunaren eta deialdiko oinarriak zorrotz betetzearen erantzulea.

Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat, batetik, oinarri hauek eta oinarri espezifikoak aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu; bestetik, deialdia behar bezala garatzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu; eta, azkenik, oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetarako, behar diren irizpideak ezarriko ditu.

18.6.– Egoitza.

Epaimahaiari erreklamazioak elektronikoki egingo zaizkio, <https://www.portugalete.org/es-ES/VivirenPortugalete/Recursos-Humanos/Paginas/OPE.aspx>. (e)n eskuragarri dagoen inprimakia beteta.

Halaber, 7 oinarrian, adierazitako udal deitzailearen bulegoetara joz bete ahal izango dira, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bulegotan aurkeztuz.

Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahaiak helbide hau izango du: Portugaleteko Udala

18.7.– Zerbitzuagatiko kalte-ordainak.

Epaimahaikideek kalte-ordainak jasoko dituzte beren zerbitzuagatik, bai eta bertaratzegatik ere, arlo honetako indarreko arautegiarekin bat etorriz.

Era berean, epaimahaiari aholkularitza ematen dioten pertsonak edo epaimahaiari zaintza edo laguntza materialeko lanetan laguntzen diotenek kalte-ordainak jasoko dituzte.

19.- Gorabeherak, aurkaratzeak.

Epaimahaiak ahalmena izango du agertzen diren zalantzak ebazteko eta prozesua behar bezala egiteko eta ordena onari eusteko beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan ezarrita ez dagoenari dagokionez. Deialdi honen, dagozkion oinarrien eta honetatik edota epaimahaiaren jardunetik sortutako administrazio-egintza guztien aurka egin ahal izango dute interesdunek Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Aarutzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezartzen dituzten kasuetan eta moduan.



1.- 20/2021 LEGEAREN 2.1 ARTIKULUTIK ERATORRITAKO EPE LUZEKO BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOEN EREDUA, ADMINISTRAZIO BEREZIAREN ESKALAKO AZPIESKALA TEKNIKOARI DAGOKIONA.

1. – Deitutako plazak.

Administrazio Bereziaren eskalako Azpieskala Teknikorako plaza baterako deialdia egiten da, txanda irekian, honela banatuta:

PLAZA KOPURUA	LOTUTAKO LANPOSTUAK	EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoa, etab.)					
		Tald.	HE	Derrigortasun data	DO	BO	REG.
1	Merkataritzako teknikaria (F.10.A1.2.1)	A1	3	-	21	18.286,22 €	F

2.– Parte hartzeko eskakizunak.

2.1.– Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan oro har ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2.– A1 azpitaldeko langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatikotasaren zenbatekoa (deitutako plazena): 3,45 euro.

2.3.– Oinarri orokorretako 2. h) apartatuan xedatutakoari dagokionez, Zuzenbidea, Herri Administrazioiko Zientzia Juridikoak, Ekonomia Zientziak edo Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza titulazioa eskatzen da.

3.– Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.

3.1.– Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, 3. hizkuntza eskakizunak betekizun izan ahalko dira. Euskara jakitea derrigortasun data igarota duten lanpostuen baldintza da.

Betekizun horiek oinarri orokorretako 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatuko beharko dira.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

4.1. Oposizio fasea

Oposizio fasean bi proba egingo dira, eta nahitaezkoak eta ez-baztertzailak izango dira.

Oposizio fasean gehienez ere 60 puntu eskuratu ahalko dira.

4.1.1.– Lehen proba:

Teoriko-praktikoa izango da eta bi zati izango ditu:

A zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Galderak oinarri espezifikoko hauen I. eranskineko gaitegi orokorren ingurukoak izango dira.

B zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Kasu teoriko-praktikoak izango dira eta oinarri espezifikoko hauen I. eranskineko gaitegi espezifikokoaren ingurukoak izango dira.

Probaren gehienezko balioa 60 puntukoa izango da (A zatia 0-20 puntu artean eta B zatia 0-40 puntu artean).

Epaiahaiak, proba egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu oinarri orokorren 7. apartatuan aipatutako lekuetan.

4.1.2. Bigarren proba, euskara proba: derrigorrezkoa eta baztertzaila izango da nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizuna duten lotutako lanpostuak dituzten plazak lortu nahi dituzten izangaiantzat, eta borondatezkoa eta ez-baztertzaila izango da nahitaezkoa ez den 3. hizkuntza-eskakizuna duten lotutako lanpostuak dituzten plazak lortu nahi dituztenentzat. Nolanahi ere, maila horretan euskararen ezagutza zehaztu eta egiaztatuko beharko da.



Proba hau Gaitzat edo Ez gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Hizkuntza-eskakizunik bete behar ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta badago, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio, berariaz, Portugaleteko Udalari erregistro horretan egiaztatu dezan.

Hala ere, erregistro horretan ez dagoen beste edozein euskarako titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, baina baliozkotuta, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozikotuta, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko denak, xedatutakoaren babesean 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEBn baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira aitortuko.

4.1.3.– Proben garapena.

Eskala, azpieskala edo kategoria bakoitzeko hautagaiak deituak izango dira probak egiteko deialdi bakarrean. Epaimahaiak hautapen probetan aukera eta tratu berdintasuna bermatzeko, proben deialdiko baldintzak aldatu ahal izango ditu haundunaldi, erditze edo ezinbesteko bestelako arrazoiak direla-eta proba egitera joan ezin diren pertsonentzat. Inguruabar horiek, ahal den heinean, epaimahaiari jakinarazi beharko zaizkio proba egin aurretik, eta justifikazio agiriak atxiki beharko dira.

Epaimahaiak proba egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dizkie egokitzapenak behar dituzten eta parte-hartze eskarian hala adierazi duten hautagaiei, eta horrela, gainerako parte-hartzaileekiko aukera berdintasuna izango dute, baldin eta horrekin probaren edukia hutsaltzen ez bada eta beharrezko gaitasun maila gutxitzen edo urritzen ez bada.

Hautaketa probak egitera joan ahal izango dira prozesuan onartuak izan diren pertsonak eta baztertuak izanda ere, egiaztatzen dutenak ebatzete dagoen gora jotzeko errekurtsoa jarri dutela. Identifikazio ondorioetarako probak egitera joango dira Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin edo gidabaimenarekin.

Oposizio faseko proba bukatuta, epaimahaiak behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du erreklamazioak jartzeko. Epe hori bukatuta eta hala badagokio aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak jendaurrean erakutsiko ditu behin betiko emaitzak.

Emaitzen argitaratzeak jakitera emango dira oinarri orokorren 6. oinarrian aipatutako lekuetan.

4.1.4.– Oposizio faseko puntuazioen zerrenda.

Oposizio faseko probak bukatuta eta hala badagokio, aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak aginduko du gaingitu dutenen puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratzea, eta sarbide txandaren eta modalitatearen arabera argitaratuko dira.

4.2. Lehiaketa fasea

Lehiaketa fasean gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira eta puntuen baturak zehaztuko du baremo honen arabera:

A) Esperientzia: **30 puntu gehienez**

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, dagokien hautaketa-prozesuaren muina diren arestikoekin parekatutako esperientzia, baldin eta zerbitzu horiek aurreko kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo lanbide-taldeetan emandako zerbitzuengatik izandako esperientzia, eragin duen harremanaren arabera langile hori funtzionarioa zein lan-kontrataduna izan.

Gehienez 10 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Administrazio Bereziaren eskalako Azpieskala Teknikoan edo kategoria teknikoan, A1 azpitaldean edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, egindako zerbitzuengatik 0,00914 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

a.2. Berariazko esperientzia:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa baloratuko dira, **gehienez ere 20 punturekin**, baremo honen arabera:



- ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO TEKNIKARIA-MERKATARITZAKO TEKNIKARIA azpieskalan edo, deialdia egin duen administrazioan, A1 azpitaldeko MERKATARITZAKO TEKNIKARIA kategorian egindako zerbitzuengatik, 0,01826 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura egingo da. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murritzuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Merezimendu akademikoak. **Gehienez 10 puntu** emango dira merezimendu hauengatik:

b.1.- Deitutako lanpostuan sartzeko eskatzen den prestakuntza akademikoa baino maila bat (1) handiagoko titulu bat izateagatik, betiere deitutako plazaiei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: BOST puntu.

A1/A2: Unibertsitate-masterreko eta/edo doktoregoko titulazioa edo baliokidea (MECES 3. eta 4. mailak)

b.2.- Lanpostuan sartzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izateagatik (eskakizun gisa egiaztatutakoa ez beste bat), betiere deitutako plazaiei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: 3 PUNTU ETA ERDI.

b.3.- Deitutako plazaiei lotutako lanpostuen eremu funtzionalei lotutako eta erakunde ofizialek (administrazio publikoko eskolak edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak) emandako edo homologatutako prestakuntza-ikastaroak jasotzeko orduengatik, 0,17 jasotako ordu bakoitzeko, gehienez ere HAMAR puntu.

b.4.- Deitutako plazaiei lotutako lanpostuen eremu funtzionalei lotutako eta erakunde ofizialek (administrazio publikoko eskolak edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak) emandako prestakuntza-ikastaroak emateko orduengatik, 0,17 puntu jasotako ordu bakoitzeko, gehienez ere HAMAR puntu.

b.5.- Informatikako ezagutzak.

Informatikako ezagutzak baloratuko dira, HAMAR puntu gehienez, eta BI PUNTU ETA ERDI emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010, oinarrizkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010, oinarrizkoa.
- Oinarrizko Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003, oinarrizkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010, maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010, aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010, aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003, aurreratua.
- Internet aurreratua.

Moduluak gainditu izana egiaztatzeko, IT Txartela ziurtapen-sistema erabiliko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren zenbait bertsio egiaztatzen badira, horietako bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenak oinarrizko maila egiaztatutzat joko dira.

b.6.- Beste hizkuntza batzuen ezagutzak.

Ingeles, frantses edo alemanaren ezagutzak baloratuko dira Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko maila hauetan, betiere deitutako plazaiei lotutako lanpostuen eremu funtzionalarekin zerikusia badute, gehienez ere x punturekin, baremo honen arabera:

- C1 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko
- B2 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko
- B1 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko



c.- Euskara ezagutzak.

Derrigortasun-data igarota ez izateagatik baldintza ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da euskararen ezagutza, baremo honen arabera:

Egokitu, kasu bakoitzean honako aukera hauen artean aukeratuta:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 5 puntu
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 10 puntu
- 3. hizkuntza-eskakizuna: 15 puntu

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

Hautaketa-prozesua gainditzeko, gutxienez 50 puntu lortu beharko dira oposizio-fasearen eta lehiaketa-fasearen artean.

6. Lan-poltsa

Deialdi honek lan poltsa bat sortuko du eta plazarik eskuratu ez duten, baina lehiaketa fasea gainditu duten pertsonak egongo dira bertan.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, ADMINISTRAZIO BEREZIKO azpieskala TEKNIKOLAN emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako.

I. ERANSKINA. GAITEGIA

GAITEGI OROKORRA

1. Konstituzioa: egitura eta edukia. Oinarritzko eskubide eta betebeharrak. Estatuaren lurralde-antolaketa: alderdi orokorrak. Autonomia-erkidegoak: haien antolaketa eta eskumena. Autonomia-estatutuak.
2. Udalerria (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen II. titulua).
3. Europar Batasuneko zuzenbidea. Erakundeen ikuspegi laburra: Kontseilu Europarra, Europar Batasuneko Kontseilua, Batzardea, Parlamentua eta Auzitegia. Egintza juridikoak: erregelamenduak eta zuzentarauak.
4. Administrazio-zuzenbidearen iturriak: Legea eta erregelamendua. Arau-hierarkia. Herri-administrazioaren legezkotasun-printzipioa. Herri Administrazioaren autotutoretza.
5. Administrazio-antolamendua: administrazio-organoak. Kide anitzeko organoak. Eskumena. Eskumenak eskuordetzea eta sinadura eskuordetzea. Goragokoak bereganatzea.
6. Kudeatzeko gomendioa. Administrazioen arteko hitzarmenak.
7. Pertsonen herri-administrazioekiko harremanetan dituzten eskubideak. Artxibo eta erregistro publikoetan sartzeko eskubidea.
8. Administrazio-egintza: ekoizpena, edukia, motibazioa eta forma. Administrazio-egintzaren eraginkortasuna. Administrazio-egintza jakinaraztea eta argitaratzea, administrazio-isiltasuna. Administrazio-egintzaren deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Administrazio-egintzak betearaztea.
9. Administrazio-prozedura: printzipio orokorrak; interesdunak; parte ez hartzea eta errefusatzeko; administrazio-prozeduraren faseak; epe-mugak eta epeak; administrazio-prozeduran interesdunen eskubideak.
10. Administrazio-egintzak berrikustea: administrazio-errekurtsoak, ofizioz berrikustea eta errebokatzea. Akats materialak eta egitezkoak zuzentzea.
11. Administrazio elektronikoa: Herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izatea. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa: egoitza elektronikoa eta interneteko ataria, identifikazio-sistemak eta sinadura elektronikoa. Ziurtagiri elektronikoa. Artxibo elektronikoa. Administrazio-espeditante elektronikoa.
12. Administrazio-agiriak. Dokumentuen kopiak eta ziurtagiriak ematea. Sinadurak legeztatzea. Baliozkotzea administrazio elektronikoa. Identifikazio eta sinadura elektronikoa. Ziurtagiri elektronikoa.
13. Zerbitzu publikoa. Zerbitzu publikoak kudeatzeko moduak.
14. Sektore publikoko kontratuak: kontratu-motak. Erregulazio harmonizatua. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak. Kontratuaren edukia eta perfekzioa. Kontratuaren balioegabetasuna. Kontratazio-arloko errekurso berezia. Kontratuak prestatzea eta esleitzea. Kontratuaren ondorioak, betetzea eta azkentzea.
15. Administrazio-baimenak eta -lizentziak. Zehatzeko ahala: printzipioak eta prozedura.
16. Euskararen erabilaren normalizazioa: herritarren hizkuntza-eskubideak; administrazio-prozeduren hizkuntza; hizkuntza-eskakizuna eta horren egiaztapena; derrigortasun-data. Euskararen erabilera normalizatzeko planak.



17. Euskal administrazio publikoen zerbitzuko langileak. Enplegatu publiko- motak. Funtzio publikoaren egitura eta antolamendua. Lanpostuak hautatzea eta sustatzea. Euskal administrazio publikoetako enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Batera ezintasunak. Ordainsariak. Administrazio-egoerak. Diziplina-araubidea. Funtzionarioen negoziazio kolektiboa.
18. Aurrekontua: kontzeptua, izaera eta motak. Printzipio inspiratzaileak. Lege gisa izapidetzea. Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontabilitate Publikoa.
19. Aurrekontuak gauzatzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren VI. tituluaren arabera.
20. 2/2005 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa. II. titulu Tributuak, kontzeptua, xedekak eta tributu-motak.
21. 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
22. Gobernu irekia: kontzeptua eta printzipio informatzaileak. Gardentasuna: publizitate aktiboa eta informazio publikorako sarbidea. Gobernu ona.
23. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzaren. I. titulua: Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.
24. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra. I. Titulua: Xedapen Orokorrak. II. Titulua: Datuak babesteko printzipioak. III. Titulua: Pertsonen eskubideak.

GAITEGI BERARIAZKOA

1. 7/1994 Legea, maiatzaren 27koa, Merkataritza Jarduerari buruzkoa. Testu kontsolidatua. EAO, 27. zenbakia, 2012ko otsailaren 1eko 27a.
2. Merkataritza-ordutegiari buruzko abenduaren 21eko 1/2004 Legearen testu kontsolidatua. EAO, 307. Zk, 2004ko abenduaren 22koa.
3. 142/2014 Dekretua, uztailaren 1ekoa, kontsumoko erreklamazio-orriak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen kexa, erreklamazio eta salaketak erantzuteko prozedurari buruzkoa. EHAA, 133. zk. 2014ko uztailaren 15ekoa.
4. Portugaletako udalerriko kaleko salmenta arautzen duen Udal Ordenantza. BAO, 47. Zk. 2011ko martxoaren 9koa.
Aldaketak
- BAO, 57. Zk. 2013ko martxoaren 21ekoa.
- BAO, 106. Zk. 2017ko ekainaren 5ekoa.
- BAO, 128. Zk. 2021eko uztailaren 7koa.
- BAO, 64. Zk. 2022ko apirilaren 1ekoa
5. Agindua, 2022ko uztailaren 19koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, 2022ko eta 2023ko ekitaldietarako Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendurako laguntza-programa arautu eta deitzen duena (OTC 2022-2023). EHAA, 149. Zk, 2022ko abuztuaren 3koa.
6. AGINDUA, 2022ko maiatzaren 10ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, merkataritza-establezimenduen eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zenbait zerbitzu modernizatzeko laguntza-programa – MEC – arautu eta deitzen duena 2022ko ekitaldirako. EHAA, 93. Zk, 2022ko maiatzaren 16koa.
7. AGINDUA, 2022ko apirilaren 5ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, 2022ko ekitaldirako Hirigune 2022 Hiri Merkataritzaren Lankidetzak, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntza-programa arautu eta deitzen duena. EHAA, 73. Zk, 2022ko apirilaren 12koa.
AGINDUA, 2022ko maiatzaren 4koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, 2022ko apirilaren 5eko Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez, Hiri Merkataritzaren Lankidetzak, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntza-programa (Hirigune 2022) arautu eta deitzen da 2022ko ekitaldirako. EHAA, 89. Zk, 2022ko maiatzaren 89koa.
8. Portugaletako merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduen dirulaguntzak emateko programa. BAO, 128. Zk, 2021eko uztailaren 7koa.
9. Portugaletako Hirigune Historikoan negozioa duten enpresei zuzendutako aparteko dirulaguntzen udal-programa. BAO, 119. Zk, 2020ko ekainaren 24koa.

2.- 20/2021 LEGEAREN 2.1 ARTIKULUTIK ERATORRITAKO EPE LUZEKO BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOEN EREDUA, ADMINISTRAZIO OROKORREAREN ESKALAKO AZPIESKALA ADMINISTRATIBOARI DAGOKIONA.**1. – Deitutako plazak.**

Administrazio Bereziaren eskalako Azpieskala Teknikorako plaza baterako deialdia egiten da, txanda irekian, honela banatuta:



PLAZA KOPURUA	LOTUTAKO LANPOSTUAK	EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoa, etab.)					
		Tald.	HE	Derrigortasun data	DO	BO	REG.
1	Obra, hiri-mantentze, osasun publiko eta ingurumeneko administraria (F.04.C1/C2.1.1)	C1	2	2019/09/27	17	17.812,42€	F

2.– Parte hartzeko eskakizunak.

2.1.– Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan oro har ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2.– C1 azpitaldeko langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa (deitutako plazena): 2,2 euro.

2.3.– Oinarri orokorretako 2. h) apartatuan xedatutakoari dagokionez, Goi-mailako batxilergoa, LH II, III. mailako lanbide-modulua edo titulazio baliokidea eskatzen da.

3.– Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.

3.1.– Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, 2. hizkuntza eskakizunak betekizun izan ahalko dira. Euskara jakitea derrigortasun data igarota duten lanpostuen baldintza da.

Betekizun horiek oinarri orokorretako 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

4.1. Oposizio fasea

Oposizio fasean bi proba egingo dira, eta nahitaezkoak eta ez-baztertzailak izango dira.

Oposizio fasean gehienez ere 60 puntu eskuratu ahalko dira.

4.1.1.– Lehen proba:

Teoriko-praktikoa izango da eta bi zati izango ditu:

A zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Galderak oinarri espezifiko hauen I. eranskineko gaitegi orokorraren ingurukoak izango dira.

B zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Kasu teoriko-praktikoak izango dira eta oinarri espezifiko hauen I. eranskineko gaitegi espezifikoaren ingurukoak izango dira.

Probaren gehieneko balioa 60 puntukoa izango da (A zatiak 0-20 puntu artean eta B zatiak 0-40 puntu artean).

Epaimahaiak, proba egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu oinarri orokorren 7. apartatuan aipatutako lekuetan.

4.1.2. Bigarren proba, euskara proba: derrigorrezkoa eta baztertzaila izango da nahitaezko 2. hizkuntza-eskakizuna duten lotutako lanpostuak dituzten plazak lortu nahi dituzten izangaiantzat, eta borondatezkoa eta ez-baztertzaila izango da nahitaezkoa ez den 2. hizkuntza-eskakizuna duten lotutako lanpostuak dituzten plazak lortu nahi dituztenentzat. Nolanahi ere, maila horretan euskararen ezagutza zehaztu eta egiaztatu beharko da.

Proba hau Gaitzat edo Ez gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Hizkuntza-eskakizunik bete behar ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

Euskara Tituluaren eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateratuan egiaztatuta badago, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio, berariaz, Portugaleteko Udalari erregistro horretan egiaztatu dezan.

Hala ere, erregistro horretan ez dagoen beste edozein euskarako titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, baina baliozkotuta, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.



Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko denak, xedatutakoaren babesean 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ziurtagiri akademikoak aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEBn baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira aitortuko.

4.1.3.– Proben garapena.

Eskala, azpieskala edo kategoria bakoitzeko hautagaiak deituak izango dira probak egiteko deialdi bakarrean. Epaimahaiak hautapen probetan aukera eta tratu berdintasuna bermatzeko, proben deialdiko baldintzak aldatu ahal izango ditu haurdunaldi, erditze edo ezinbesteko bestelako arrazoiak direla-eta proba egitera joan ezin diren pertsonentzat. Inguruabar horiek, ahal den heinean, epaimahaiari jakinarazi beharko zaizkio proba egin aurretik, eta justifikazio agiriak atxiki beharko dira.

Epaimahaiak proba egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dizkie egokitzapenak behar dituzten eta parte-hartze eskarian hala adierazi duten hautagaiei, eta horrela, gainerako parte-hartzaileekiko aukera berdintasuna izango dute, baldin eta horrekin probaren edukia hutsaltzen ez bada eta beharrezko gaitasun maila gutxitzen edo urritzen ez bada.

Hautaketa probak egitera joan ahal izango dira prozesuan onartuak izan diren pertsonak eta baztertuak izanda ere, egiaztatzen dutenak ebazteke dagoen gora jotzeko errekurtsoa jarri dutela. Identifikazio ondorioetarako probak egitera joango dira Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin edo gidabaimenarekin.

Oposizio faseko proba bukatuta, epaimahaiak behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du erreklamazioak jartzeko. Epe hori bukatuta eta hala badagokio aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak jendaurrean erakutsiko ditu behin betiko emaitzak.

Emaitzen argitaratzeak jakitera emango dira oinarri orokorren 6. oinarrian aipatutako lekuetan.

4.1.4.– Oposizio faseko puntuazioen zerrenda.

Oposizio faseko probak bukatuta eta hala badagokio, aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak aginduko du gainditu dutenen puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratzea, eta sarbide txandaren eta modalitatearen arabera argitaratuko dira.

4.2. Lehiaketa fasea

Lehiaketa fasean gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira eta puntuen baturak zehaztuko du baremo honen arabera:

A) Esperientzia: 30 puntu gehienez

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, dagokien hautaketa-prozesuaren muina diren arestikoein parekatutako esperientzia, baldin eta zerbitzu horiek aurreko kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo lanbide-taldeetan emandako zerbitzuengatik izandako esperientzia, eragin duen harremanaren arabera langile hori funtzionarioa zein lan-kontratuduna izan.

Gehienez 10 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Administrazio Orokorraren eskalako Azpieskala Administrazioan edo kategoria administrazioan, C1 azpitaldean edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, egindako zerbitzuengatik 0,00914 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

a.2. Berariazko esperientzia:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa baloratuko dira, **gehienez ere 20 punturekin**, baremo honen arabera:

- ADMINISTRAZIO OROKORREKO eskalako ADMINISTRARI AZPIESKALAN OBREN ADMINISTRAZIO, HIRI MANTENTZE, OSASUN PUBLIKO ETA INGURUMENEN lanpostuan emandako zerbitzuengatik, lanpostu horretan jarduteko C taldeko C1 azpitaldeko berezko titulazioa behar denean, edo deialdia egin duen administrazioan titulazio bera eskatzen duten antzeko eginkizunetan lan-kontratuko langile gisa emandako zerbitzuengatik, 0,01826 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura egingo da. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murrituan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Merezimendu akademikoak. **Gehienez 10 puntu** emango dira merezimendu hauengatik:



b.1.– Deitutako lanpostuan sartzeko eskatzen den prestakuntza akademikoa baino maila bat (1) handiagoko titulu bat izateagatik, betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: BOST puntu.

C1: Unibertsitate-graduak titulazioa edo baliokidea (MECES 2. maila)

b.2.– Lanpostuan sartzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izateagatik (eskakizun gisa egiaztatutakoa ez beste bat), betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: 3 PUNTU ETA ERDI.

b.3.– Deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalei lotutako eta erakunde ofizialek (administrazio publikoko eskolak edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak) emandako edo homologatutako prestakuntza-ikastaroak jasotzeko orduengatik, 0,5 jasotako ordu bakoitzeko, gehienez ere HAMAR puntu.

b.4.– Deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalei lotutako eta erakunde ofizialek (administrazio publikoko eskolak edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak) emandako prestakuntza-ikastaroak emateko orduengatik, 0,5 puntu jasotako ordu bakoitzeko, gehienez ere HAMAR puntu.

b.5.– Informatikako ezagutzak.

Informatikako ezagutzak baloratuko dira, HAMAR puntu gehienez, eta BI PUNTU ETA ERDI emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010, oinarrizkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010, oinarrizkoa.
- Oinarrizko Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003, oinarrizkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010, maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010, aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010, aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003, aurreratua.
- Internet aurreratua.

Moduluak gainditu izana egiaztatzeko, IT Txartela ziurtapen-sistema erabiliko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren zenbait bertsio egiaztatzen badira, horietako bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenak oinarrizko maila egiaztatutzat joko dira.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

Hautaketa-prozesua gainditzeko, gutxienez 50 puntu lortu beharko dira oposizio-fasearen eta lehiaketa-fasearen artean.

6. Lan-poltsa

Deialdi honek lan poltsa bat sortuko du eta plazarik eskuratu ez duten, baina lehiaketa fasea gainditu duten pertsonak egongo dira bertan.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, ADMINISTRAZIO BEREZIKO azpieskala TEKNIKOLAN emakumeen azpiordezkartzarik ez dagoelako.

**I. ERANSKINA. GAITEGIA****GAI OROKORRAK**

1. gaia: Konstituzioa. Egitura eta edukia. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak.
2. gaia: Estatuaren lurralde-antolaketa. Alderdi orokorrak. Autonomia-erkidegoak; haien antolaketa eta eskumena. Autonomia-estatutuak.
3. gaia: Udalerria (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen II. titulua).
4. gaia: Berdintasuna: testuingurua – aurrekariak. Xedea eta amaiera. Printzipio orokorrak: tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetua; genero-ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea; ordezkaritza orekatua; lankidetzeta eta koordinazioa. Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak.
5. gaia: Administrazio elektronikoa. Herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izatea. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa: egoitza elektronikoa eta Interneteko ataria, identifikazio-sistemak eta sinadura elektronikoa. Artxibo elektronikoa. Administrazio-espeditentea.
6. gaia: Euskararen erabileraren normalizazioa. Herritarren hizkuntza-eskubideak. Enplegatu publikoen hizkuntza-gaikuntza. Euskararen erabilera normalizatzeko planak.
7. gaia: Euskal herri-administrazioetako langileak. Enplegatu publiko- motak. Euskal administrazio publikoetako enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Ordainsariak. Diziplina-araubidea.
8. gaia: Datu pertsonalen babesaren oinarrizko alderdiak: kontzeptuak, printzipioak eta eskubideak.
9. gaia: Laneko arriskuen prebentzioa. Xedea. Eskubideak eta betebeharrak: eskubidea eta laneko arriskuen aurreko babesa. Prebentzio-jardueraren printzipioak. Prebentzio-plana, arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza. Langileen prestakuntza.
10. gaia: Gobernu irekia. Kontzeptua eta printzipio informatzaileak. Informazio publikoa eta gobernu ona eskuratzea.

GAI BERARIAZKOAK

1. Gastuen aurrekontua. Kontzeptu garrantzitsuak: aurrekontu-aplikazioa, lotura, esku-hartzearen erreferentzia, konpromiso-kredituak eta justifikatu beharreko ordainketak. Gastuen aurrekontua gauzatzea: gastua baimentzea, gastua xedatzea, obligazioa hartzea, ordainketa xedatzea. Gastuen hondakinak. Funts aurreratuak.
2. Herritarrek zerbitzu eta prestazio publikoen hartzaile gisa. Jendearentzako informazioa eta arreta. Kexa eta erreklamazioei erantzutea. Desgaitasuna duten pertsonak. Kulturen arteko arreta euskal administrazioan.
3. Administrazio-zuzenbidearen iturriak: Legea eta erregelamendua. Arau-hierarkia. Administrazio publikoaren legezketasun-printzipioa.
4. Administrazio-antolamendua: administrazio-organoak. Kide anitzeko organoak.
5. Administrazio-egintza: ekoizpena, edukia, motibazioa eta forma. Administrazio-egintzaren eraginkortasuna. Administrazio-isiltasuna. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna.
6. Administrazio-prozedura: printzipio orokorrak. Interesdunak. Abstenzioa eta errefusatzeta.
7. Administrazio-prozeduraren faseak.
8. Egintzak berrikustea: administrazio-errekurtsoak, ofizioz berrikustea eta ezeztatzea.
9. Akats materialak zuzentzea.
10. Herri-administrazioen, haien agintarien eta gainerako langileen erantzukizunaren printzipio orokorrak.

3.- 20/2021 LEGEAREN 2.1 ARTIKULUTIK ERATORRITAKO EPE LUZEKO BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOEN EREDUA, ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ESKALAKO AZPIESKALA ADMINISTRATIBOARI DAGOKIONA.**1. – Deitutako plazak.**

Administrazio Bereziaren eskalako Azpieskala Teknikorako plaza baterako deialdia egiten da, txanda irekian, honela banatuta:



PLAZA KOPURUA	LOTUTAKO LANPOSTUAK	EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoak, etab.)					
		Tald.	HE	Derrigortasun data	DO	BO	REG.
1	Liburutegiko laguntzailea (F.07.C1/C2.2.2)	C1	2	2000/12/29	17	17.812,42 €	F

2.– Parte hartzeko eskakizunak.

2.1.– Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan oro har ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2.– C1 azpitaldeko langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik tasaren zenbatekoa (deitutako plazena): 2,2 euro.

2.3.– Oinarri orokorretako 2. h) apartatua xedatutakoari dagokionez, Goi-mailako batxilergoa, LH II, III. mailako lanbide-modulua edo titulazio baliokidea eskatzen da.

3.– Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.

3.1.– Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, 2. hizkuntza eskakizunak betekizun izan ahalko dira. Euskara jakitea derrigortasun data igarota duten lanpostuen baldintza da.

Betekizun horiek oinarri orokorretako 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

4.1. Oposizio fasea

Oposizio fasean bi proba egingo dira, eta nahitaezkoak eta ez-baztertzailak izango dira.

Oposizio fasean gehienez ere 60 puntu eskuratu ahalko dira.**4.1.1.– Lehen proba:**

Teoriko-praktikoa izango da eta bi zati izango ditu:

